

Iparragirre kalea lehenesteko eskatu dio Bidegorridxe ekimenak udalari

Ekimenaren bultzatzaileen ustez, Mestikabason hasitako lanak ez datoz bat bizikleta sarearen planifikazio orokor batez; horregatik, gelditzeko eskatu diote udalari

-IZARO MENDIETA

Gernika-Lumo

Gernika-Lumoko Bidegorridxe ekimenaren bultzatzaileek salatu dute udalak Mestikabaso kalean hasitako lanak ez datozela bat bizikleta sarearen planifikazio orokor batez, eta, horregatik, behar horiek gelditzeko eskatu dute. Gainera, kale horretako lanek «puntu arriskutsu ugari» sorraraziko dituztela ere kritikatu dute. Bestalde, Iparragirre kalean «premiak esku hartzea» eskatu dio udalari, «arrisku handiko gunea» dela uste baitu.

Azaroan hasi zituen udalak Mestikabaso «hobetzeko» lanak, «oinetzko eroaso ibiltzeko» aukera emanez. Espaloia handitzea da asmoa, Mestikabaso 11 zenbakitik 45eraino doan bidean. Zabaleran tamaina bikoiztuko diote, eta bizikletak igarotzeko bidea egingo dutela esan zuten. Lanak urte bukaerarako amaitzea aurreikusten du udalak, eta horien kostua 175.000 eurokoa da.



Postetxearen parean bidegorria bat-batean bukatzen dela kritikatu dute ekimenaren bultzatzaileek. o.c.

Bizikletaren erabilera egokia sustatzeko proposamenak eta konponbideak lantzen ari diren eragileei egiteko horiez ez diela

galdegin kritikatu dute Bidegorridxe ekimenaren bultzatzaileek. Lan horiek ez direla bizikleta sarea zabaltzeko dagoen plan

orokorrean oinarritzen diote, eta aipatu plana herriko eragile desberdinen lankidetzan landu behar harko litzatekela uste dute. Izan

ere, planak bizikleta erabilera eskatzen duten herriko eraikin, ekipamendu eta gune ugari hartu behar ditu aintzat; hala nola, ikastetxeak.

Halaber, lan horietan xahutuko duten diru hori Eusko Jaurlaritzak bidegorriaren hobekuntzarako eman zuela gogora ekarri dute. Eta horregatik guztiagatik, mahai tekniko bat sortu eta gai horri buruz «ganoraz aritzea» eskatu dute, «serio berba egin eta oinarriak ezartzeko, Gernika-Lumon, behingoz, mugikortasun jasangarria bultzatzea».

Berba egitea, «ukatuta»

Azaroaren 30ean, esaterako, udalean egindako osoko bilkura bertaratu ziren, gaiari buruz daukaten iritzia ematekotan. Hala ere, herriko alkate Jose Maria Gorroñok «hitza ukatu» ziotela salatu dute, «nahiz-eta eskaria idatziz egin zegoen, eta udal txeko erroldan erregistratuta». Herriarrek, orduan, aretoa utzi eta alde egin zuten, eta jarrera bera izan zuten EH Bilduko ordezkariak, ez daudelako prest «herriarreganako horrelako errespetu faltarik onartzeko».

Horrenbestez, eta bere ideiak jendarteari jakinarazteko, Bidegorridxe ekimenaren sustatzaileek beraien esku dauden «bide guztiak» erabiliko dituztela aipatu dute.

Gautegiz Arteagak hartuko du Marijesien topaketa

-I.M.

Marijesien topaleku bilakatuko da zapatuan, Gautegiz Arteaga; bertan batuko dira Bizkaiko zenbait marijesi talde.

Hain justu, Andra Mari eliza izango da abeslari guzti horien elkargunea 19:00etatik aurrera. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, honakoak izango dira zapatuko saioan parte hartuko dutenak: Gautegiz Arteagakoak, Eakoak, Gernika-Lumokoak, Ibarangelukoak, Lekeitiokoak, Ariatzakoak (Muxika) eta Iurretakoak.

Herri bakoitzak bere eran mantentzen du antzinatik datorren ohitura; Ean, Gernika-Lumon eta Gautegiz Arteagan, esaterako, Gabon aurreko bederatzigunetan ateratzen dira abesten kalera, eta gainontzekoetan, egun bakarrean. Koplak eta doinuak ere herri bakoitzaren araberakoak izaten dira; baina guz-

tiak dira Gabonak iragartzeko balio dutenak.

Errotutako ohitura

Zapatuan, banan-banan abestuko dituzte beraien koplak aipatu taldeek. Juan Felix Naberan Gautegiz Arteagako alkatearen arabera, «marijesien ohitura aspaldidanik dator, eta ondo errotuta dago herrian». Belaunaldiz belaunaldi mantendu den ohitura dela nabarmendu du, eta Gabon bueltan herrian giro polita sortzen duela deritzo. Hala, argi dauka herriarrek arreta handiz hartuko dutela zapatuko topaketa.

Gernika-Lumoko Marijesiak, bestalde, bederatziruenera begira daude, eta entseguetarako egunak zehaztu dituzte. Gaur eta bihar bilduko dira Andra Mari Koralearen lokalean horretarako, 20:00etatik 21:00etara bitartean.



Iaz Lekeition egin zuten Marijesien topaketa. NEREA BEDIAUNETA